



Bekaizkeria

1

Begiratu Emoziotegiko 82-83. orrialdeetako irudiari.

- Deskribatu pertsonaiak.

- Zer desberdintasun dute?

2

Zer uste duzu ari direla pentsatzen irudiko pertsonaiak (Emoziotegiko 82-83. orrialdeak)? Idatzi.





3

Irakurri Emoziotegiko 82. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- ☐ Jeloskortasuna eta bekaizkeria emozio bera dira.
- ☐ Jeloskortasunak eta bekaizkeriak ez dizute pozik egoten uzten.
- ☐ Jeloskortasuna norbaitek zurea den zerbait kentzen dizunean sortzen da.
- ☐ Bekaizkeria besteek zuk nahi duzun zerbait dutenean sortzen da.
- ☐ Bekaizkeriak tristura sentiarazten dizu.

● Orain, zuzendu esaldi okerrak.

4

Erantzun bekaizkeriari eta **jeloskortasunari** buruzko galdera hauei.

● Zertan datoz bat?

● Zer desberdintasun dute?

● Zer sentiarazten dizute besteekiko?

5

Emoziotegiko 82. orrialdeko testuaren arabera, jeloskortasunak eta bekaizkeriak **elkar pizten dute**. Azpimarratu kolore batez **piztu** adierazten duten aditzak.

kitzikatu errieta egin animatu eragotzi itzali

bizkortu jokatu aktibatu aurpegiratu moteldu

● Ba al dago **piztu** aditzaren kontrako esanahia duen aditzik? Zein?

6

Zer senti lezake Xantik egoera hauen aurrean? Jeloskortasuna ala bekaizkeria? Idatzi **J** edo **B**, dagokionaren arabera.

- ☐ Xantik arrebatxo bat izan du.
- ☐ Xantiren lagunik onenari skateboard bat oparitu diote.
- ☐ Xantiren lehengusu bat urtebete pasatzera etorri da Xantiren etxera.
- ☐ Xantiren lagun guztiek galtza berriak dituzte.
- ☐ Xantiren ama lanera itzuli da bi urteren ostean.

7

Elkar hitzak "batak bestea" esan nahi du. Noiz agurtzen dute **elkar** Jonek eta Peiok? Markatu.

- ☐ Jonek Peio agurtzen badu, baina Peiok ez badu Jon agurtzen.
- ☐ Jonek Peio agurtzen badu eta Peiok Jon agurtzen badu.
- ☐ Jonek eta Peiok beren burua agurtzen badute ispiluaren aurrean.

● Idatzi batak besteari egin diezazkiokeen gauzak.

Laztandu, _____

8 Irakurri bi esperientzia hauek, eta erantzun.

Xabi

Nire lagunik onenak Markel du izena. Oso jostaria da! Den-dena elkarrekin egiten dugu, eta primeran pasatzen dugu. Orain, ordea, bere lehengusu Ibai etorri da urtebeterako berarekin bizitzera. Egun osoa elkarrekin igarotzen dute. Batzuetan hirurok jolasten gara, baina haiek beren arteko txantxak eta jolasak dituzte. Ni asko haserretzen nau horrek. Ibai ez zait gustatzen. Ez dakit zer ikusten dion Markelek...

Nire lehengusina Laida ilegorria da. Amak txirikordak, mototsak... egiten dizkio. Panpinatxoak dituzten urkilak jartzen dizkio... Tira, denetarik. Badirudi mundu guztia haren ile ederraz jabetzea nahi lukeela. Ez da bidezkoa. Zergatik ezin dut nik hark bezalako ilea izan?

Sara

- Bi pertsona horietako zeinek sentitzen du jeloskortasuna? Eta bekaizkeria?

- Zeren beldur da Xabi Markelekiko harremanari dagokionez?

- Zerk tristatzen du Sara?

- Uste duzu bietakoren batek ezer egin lezakeela egoera aldatzeko? Zer?

9

Irakurri testua, eta egin marrazki bat. Gero, erantzun galderei.

Miren triste dago Ainara baino txikiagoa delako. Ainara triste dago Garazik berak nahi lukeen jostailu bat daukalako. Garazi triste dago Eñaut berak nahi lukeen izozkia jaten ari delako. Eñaut triste dago Mirenek berari gustatzen zaion bizkar-zorroa daukalako. Koldo bere skateboardaz gozatzen ari da.

● Pertsonaiaren bat pozik dago? Nor?

● Uste duzu pertsonaiak beren gauzez gozatzen ari direla? Zergatik?



Bekaizkeria

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.